# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 1953

*971/2025 EBAZPENA, apirilaren 23koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez errebokatzen baita María Begoña Ruiz Aguirre andreari Sodupe-Gueñeseko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak esleitu izana, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkar terri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan.*

1837/2021 Ebazpenaren bidez, María Begoña Ruiz Aguirre andrea izendatu zen Sodupe-Gueñesko Lehen Mailako Arretako Unitateburu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Errebokatzea María Begoña Ruiz Aguirre andreari Sodupe-Gueñesko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak esleitu izana, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko apirilaren 30eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2025eko apirilaren 23a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari-gerentea,
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.